

opusdei.org

Harambee, auzolanean, Afrikaren itxaropena

“Harambee” delakoaren leloa
dugu, 2002an jaiotako
elkartasun-proiektu bat Opus
Deiren sortzailearen
kanonizazioa dela-eta eratua

2006 Mar 22

Harambee 2002 programak
hezkuntza-ekimenak Afrikan eta
Afrikari buruz sustatzen ditu, hego-
Saharako eremuaren garapenerako

proiektuen bidez eta munduan
barreneko sentsibilizazio ekintzen
bidez sortu ere. Sentsibilizazio
ekintza hauen helburua kultura
afrikarraren balio, ezaugarri eta
etorkizunerako aukerak
ezagutaraztea da.

Swahili hizkuntzan “harambee”
hitzak “denok batera” edo
“auzolanean” esan nahi du.
Arrantzaleek sareak itsasertzera
hurreratzean oihukatzen dute,
auzolana beharrezkoa denean esaten
da: premia duen familia bati
laguntzeko, eskolaren bat
eraikitzeko, gurtza-eraikin bat
egiteko, etxe bat altxatzeko.
Norberak ahal duena eskaintzen du,
dirua edota gauzak, baina denok
batera: denek eman eta jasotzen
dute.

Harambee-k Istituto per la
Cooperazione Universitaria di Roma
(ICU) delakoarekin egiten du bere

lana. Azken erakunde honek hezkuntzan eta Afrikarekiko elkartasunean jardun du azken urteotan.

Lehengo otsailaren 14an Harembee-k dirua biltzeko kanpaina bat iragarri zuen prentsaurreko batean.

Kanpaina horren helburua honako lau egitasmook martxan jartzea da:

1) *Sudanen*: Gerra zibiletik ihesi eta hegoaldetik datozen gazte zein emakumeak profesionalki trebatzea.

2) *Kenian*: Batez ere lehen eta bigarren hezkuntzako Ikastetxeetan ari diren irakasleei trebatze-ikastaro bat ematea.

3) *Madagascarren*: Artisautza eskolak eskaintzea, horrela familia batzuek daukaten lanbidea profesionalizatu eta beren ekonomia sendotu ahal izango dute.

4) *Kongoko Errepublikan*: Nekazari eremu batean osasun-zerbitzu bat sortzea Kinshasa inguruan, estatuko hiriburuan, hain zuzen. Proiektu hau haur eta emakumeei begira dago, batez ere.

Era berean, “Afrika ezagutarazi” delako sariaren II. edizioa aurkeztu da. Bertan telebista erreportajeek hartzen ahal dute parte, Afrikako garapenaren alderdi bat islatuz ikuspegi errealista eta itxaropentsu batetik.

Sortu zenetik, Harembée-k Afrikako 14 estatutan 24 egitasmo finantziatu ditu, bertako pertsonen sustaturiko proiektuak eurak guztiak. Lau egitasmo berri hauek Aita Santuak bere “Deus caritas est” entziklikaren bidez egin duen aldarriari erantzun nahi diote.

Prentsaurrekoaren adierazpenak

“2006ko kanpainak —Carlo De Marchi Harembere-
ren sustatzailearen esanetan—
afrikarren itzaropenari eutsi nahi
dio. Badakigu lau egitasmo hauek
basamortuan eroritako lau ur-tanta
baino ez direna. Dena dela,
garrantzitsuak dira oso; izan ere,
Afrikako garapenean lanean
dabiltzanen gogoak bizkortzen
dituzte eta emaitza onak lortzen ari
dira.

Lida Corbi kanpainaren nazioarteko
koordinatzaileak esan zuenez,
“egitasmo hauek guztiak Afrikako
erakunde lokalek bultzaturikoak
dira. Afrikak afrikarrei esker
konponduko ditu bere arazoak.
Beren etorkizuna hobetzeko laguntza
behar dute, besterik ez; kontinente
hura garatzen ari direnei gure
laguntza eman behar diegu.

Kongon eta Sudanen ari diren
proiektu batzuen ordezkari bi ere

egon ziren prentsaurrekoan; izan ere, eurek ere Harambee 2006-ren diru-laguntzak jasoko baitituzte.

Patience Mbombok, Monkole Hospitaleko erizainak (Kinshasa, Kongo) 100 emakume eta 500 haur atendituz aritzen direla azaldu zuen, hiriburutik kanpoko eremuetan. Zonalde horietan 500.000 pertsona inguru bizi dira, eta jakitun dira jende gehiagorengana ailegatu behar direla: “Etxekoandreak Kongoko gizarte-garapenerako oinarri-oinarrizkoak dira: eurak heziketaren arduradunak dira eta beren laguntzarekin kontinentea aurrera aterako da”.

Liliana Ugoletti kanosiar lekaimeak Sudanen izan zuen esperientzia kontatu du. Bertan emakumea gizartean eta profesio mundua bultzatzen ari da lanean eta hauxe adierazi zuen: “Urte hauetan konturatu naiz emakume

afrikarrendako laguntzarik handiena ez dela hezkuntza jasotzea, ezpada aupadak eta laguntza jasotzea euren baitan duten ahalbideak garatu ahal izateko”.

Harambee ICUK sustaturiko ekimen bat da, Gobernu Kanpoko Erakunde bat eta bere egoitza Erroman dago. 1966. urtetik bost kontinenteetan aritu da lanean.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/harambee-auzolanean-
afrikaren-itxaropena/](https://opusdei.org/eu-es/article/harambee-auzolanean-afrikaren-itxaropena/) (2026 Ots 22)